



Babiloniaren egilearentzat

Hilaren 23an Liburuaren Eguna denez, Joan Mari Irigoien altzatar idazleari bazkaria prestatzea eskatu didate IRUTXULOkoek. Altzatarrek bihotzez maite du bere auzoa eta donostiartzat baino altzatarizat du bere burua. Irigoienek 1973an plazaratu zuen bere lehen lana "Oilarraren promesa", eta ordutik hona hainbat liburu idatzi ditu: "Babilonia", "Poliedroaren hostoak", "Udazkenaren balkoitik"... Udaberriko baratzeak jakiez eginiko bazkaria egingo diot dagoneko hainbat sari irabazi dituen idazleari. Lehendabizi, nafar zainzuriak. Edozein saltzatan busti daitezke zainzuriak, baina oliba olioarekin primeran geratu ohi dira.

Bigarrenik, ilarrak egingo dizkiot. Garai honetan, sukaldatu ondoren, perla txikiak dirudite ilarrek, malkoen antzera. Ilarrei zapo zenbait zati eta txirlak saltsan gelituko dizkiot. Hirugarren platererako garraiko zizak prestatuko ditut, denborak aurrera egin ahala salneurria merketuz joanda eta. Eta zizak laguntzeko, ba al da plantxan eginiko ahate gibel zerra baino jaki hobeagorik? Postrea falta zait, eta Irigoienek goza dezan, Uria mendiko basomarrubiak eskainiko dizkiot. Egon badaude, baina bilatu behar!

Eta menu hau bustitzeko aurtengo txakolin botila bat ipiniko diot mahai gainean. Hori bai pagotxa!

Errezeta

Zainzuriak oliba olioan

- **Osagaiak sei lagunentzat:**

- 24 zainzuri
- Oliba olio, gatza eta azukrea

- **Prestaketa:**

- Zainzuriak zuritu burutik hasi eta behealdera
- Ura, gatza eta azukre pixka bat ipini presiozko ontzi azkar batean eta irakiten jarri. Ondoren, zainzuriak elkarrekin lotuta sartu. Buruek goraka egon behar dute, ura ikutu gabe. Zainzuriak 4 minutuz bertan egon ondoren, plater batera atera eta oliba olioan gainetik bota.



Tibur Eskisabel



"Murphy gainerik kendu ezinda"

antzezlanerako 12 sarrera ditugu zozketatzeko, **sei lagunentzat bina sarrera.** Emanaldia apirilaren 25ean, osteguna, izango da Antzoki Zaharrean 21.00etan.

Apirilaren 22an goizeko 09.00etatik aurrera deitzen duten lehen sei lagunentzat izango dira sarrerak.